

## Laguna

Dennis S. Miles

*Itzultzailea: Andolin Eguzkitza*

2005

Txalaparta

"Benetan ez haut maite batere"

Berriki irakurri diogu esaten M Darrieusecq idazleari liburu gehienak alferrikakoak direla. Esku artean duguna ez da inondik ere horietakoa. Aldiz, bikain egokitzen zaio eleberri honi A.Lobo Antunesek atera berri duen liburua definitzeko dioena: "eldarnio egituratu bat da".

Morgan psikiatrikotik atera berria da eta lan-eskaintza bat onartzen du: Milkis, Henri eta Zoraren seme elbarria zaindu beharko du gau eta egun, jai-egunik batere gabe. Lan hori onartzen duenetik gero eta harrapatuago ikusiko du bere burua giro "absurdu" batean. Kakotxak jarrita diogu absurdu, zeren Morganez berak Kirsten-i, bere alegiazko lagunari, idatzitako gutunetako batean adierazten dio, izan ere mundu normalera sartzeko bidea izango zelakoan saiatu zela lan-bila. Hala, eta Morganen hitzetan beti ere, zirriborro bat begitanduko zaio azkenean dena.

Familia horretan sartzan denetik, absurduaren mundu horretan murgiltzen denetik, bizi-bizi eta sakon kurrituko dute harremanek, etengabeko elkarrizketen bidez irakurlea amaieraraino adi-adi edukiko dutenek. Gai sakonak, zorionera bezala sufrimendura garamatzatenak, modu biziz emanak. Zuzenean iristen zaizkigu, zirrara eragiten dute gugan, pentsamendu maila gaintuz eta bizipen zuzenarenean kokatzen baikaituzte. Bestela esanda, hitzetan jartzea lortzen du definizioz hitzetara ekar ez daitekeena. Ametsak adieraztea bezain zaila, ametsak adieraztea bezain benetakoa. Eta horrek bai, horrek merezi du, horretan saiatzen diren liburuak ez dira alferrikakoak. Hala, Morgan eta Milkisen arteko elkarrizketa bizi horietan aurkituko dituzu, niri behintzat hala iruditu zait, maitasunari buruzko iritzi eta burutazio zinez interesgarriak.

Itzulpenari dagokionez, argi eta garbi adieraziko dizut: ondoan hiztegia hartuta irakurtzekoa duzu liburua. Ez zaizu, ordea damutuko. Liburuei, alferrikako izan ez daitezten, zerbait berri eskatzen diegun bezala, itzulpenek ere ez dute alde horretatik lo gelditu behar. Oraingoan ez duzu aurkituko literatura itzultzeko azken urteotan osatu dugun nolabaiteko euskera standar hori -kostata osatu duguna eta egundoko merezimendua duena- aurkituko. Euskalki bateko eta besteko hitz eta egiturez zipriltzindua, oso lan polita, bitxia bezain interesgarria, egin zuen Andolinek itzulpen honekin. Eta Andolinen aditz maitatuetako bat erabiliz amaitzeko, merezi du benetan patxada pixka bat hartzea liburu hau "hostokatzeko".

Mikel Garmendia